

# B

BARREN

## 100 urte, sasoi betean

Modesta Fernandez de Jauregi

TOKIKOM





230.000 €tik aurrera  
garajea eta trastelekua barne



- Etxebizitza BERRIAK
- Banco Guipuzcoanok finantzaturako obra
- Berahala eskuratzeko aukera
- Egungo etxebizitza saltzeko helburuarekin erosketa geroratzeko aukera
- Bi etxebizitza-eredu bisitatzeko aukera
- Horma-armairu eta guztiz hornitutako sukaldearekin



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B

Tel. 943 74 44 67

ELGOIBAR



## Errespeta dezagun basoa

Onddoak ere arriskuan daude, eta babes egokia behar dute. Arrisku horren arrazoiak natur ingurunearen suntsiketa, klima aldaketa eta kutsadura atmosferikoa dira, besteak beste. Baina perretxiko biltzaileen ekintza arduragabeak ere salatu behar ditugu: mendian topatutako dena etxera eramatea eta ikusitako perretxikoak zapaltzea, esate baterako. Mendian daukagun jokabideari buruz gogoeta egin beharra daukagu, gure ekintzek ere garrantzia handia dutelako. Ez beraz aitzakiarik bilatu klima aldaketan edo kutsadura atmosferikoan.

Perretxiko zale batek jakin behar du onddoak kontu handiarekin hartzen, mizelioa ez hondatzeko, eta era berean, jakin behar du, baita ere, ingurua errespetatzen. Basoko perretxikoen kontsumoaren inguruan, kontuan hartu behar dugu, gutxi batzuk kenduta, asko eta asko kutsakorrek direla eta ez direla jateko onak, jende askok denak jan daitezkeela pentsa arren. Guzti horren erakusgarri dira garai honetan horren ohikoak izaten diren intoxikazio kasuak.

Bestalde, ez nituzke aipatu gabe utzi nahi "kiloka eta kiloka" perretxiko hartzen dituztenak ere. Izan ere, bilketa masibo horiek onddoen ziklo biologikoa eteten dute kasu gehienetan. Zorritzarrez, perretxiko biltzaileen ehuneko handi batek era horretan jokutzen du, eta

horiek mehatxu ekologikoaren arduradun zuzenak dira. Aranzadi Zientzia Elkarteak kezka hori agertzen du hitzaldietan.

Gipuzkoako Foru Aldundia notizia izan da aste honetan, datorren urtetik aurrera Gipuzkoako natur parkeetan perretxiko bilketak zaintzen hasiko direlako. Hala ere, mendi esparru horietatik kanpo, denak berdin segituko du; hortaz, ezer gutxi konponduko dugu.



Jose Agustin Olasolo

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:  
943 744 112 edo barren@elgoibarzoizarra.com

## "Perretxiko bilketa masiboek onddoen ziklo biologikoa eteten dute kasu gehienetan"



**Ni ere banaiz  
BARREN!**

**Zergatik babesten duzu BARREN?**

**JUAN AGUSTIN ESNAOLA**

*"Dena euskaraz delako eta Elgoibarren gertatzen diren gauzen berri izateko oso aproposa delako"*



# 100 URTE, BIZI-BIZI

**Atzo egin zituen Modesta Fernandez de Jauregik 100 urte, eta sa-soi betean dago. Azken hogeitun urteotan, gainera, inoiz egin gabekoak egin ditu. 80 urterekin egin zuen hegazkinean estreinako bidaia, eta ordutik, hogeita bost aldiz ibili da. Burua argi-argi dauka Modestak, eta umore bikaina. Ileapaindegian jarri dio hitzordua BARREneko kazetariari, erretratua ateratzeko “dotore” jarri nahi duelako. Bere burua aurpegian ikusi duenean “ezagutzen al nauzu?” galdetu dio alabari irribarrez. Bihar egingo du mendeurreneko ospakizuna familiako guztiekin, eta bistan da ilusioz beterik dagoela.**

Ainhoa Andonegi



**L**au seme-alaba, zazpi biloba eta hamar birbiloba ditu Modestak, eta denak elkartuko dira bihar Deban, amamaren ehungarren urtebetetzea ospatzeko. Pozez zorutzen dago, baina bere urtebetetzeak baino ilusio handiagoa egiten dio familia osoa batzeak.

Sasoiko dago, osasuntsu eta umoretsu. 100 urtera iritsi izanaren sekretuaz galdetzean ere barrezka erantzun du: “Sekretua? ondo jatea!”. Denetik jaten du Modestak, eta postrearentzako lekua ere beti gordetzen du. Hori bai, dena gatzik gabe jaten du: “Senarrari kendu zion gatza medikuak, eta halaxe jatera ohitu nintzen neu ere. Hasieran txerri-jana iruditzen zitzaidan jateko guztia, baina orain gatzik gabe jatea nahiago dut”.

Ez kolesterolik, ez tentsio alturik, ez diabetesik... 100 urte eta sekulako osasuna dauka. Azken urteotan bizi-kalitatea asko hobetu da, eta bizi-itxaropenak ere gora egin du. Emakumeen bizi-itxaropena 87 urtekoa da, eta gizonezkoena 81ekoa. Modestak hori ere gainditu du, eta ez edonola, gainera. Bizimodua lasaitasunez hartzen du orain, gaztetan lan nahikoa egin zuelako. Ez zaio goiz jaikitzea gustatzen: “Zertarako? bi aldiz gosaltzeko? Ez daukat beharrik”, esan du umorez. 10:00ak aldean jaikitzen da, eta bere ohea egiten du. Gosaldu, garbitu eta txutxumutxuen aldzkariak irakurtzen ditu, alaba erosketak egitera joaten den bitartean. “Ondo portatuko naizela, eta lasai joateko esaten diot”. Kartetan jokatzera ere gustatzen zaio, *solitarioan*, eta jubilatuen egoi-

tzara ere joaten da lagunekin karta jokoan egitera. Iluntzean *Pasapalabra* programa ikusten du, eta asteburuetan *Cine de Barrio*. Lehendik ikusitako pelikulak gustatzen zaizkio, berriak ez dituelako ulertzen. Hala ere, gero eta gutxiago gustatzen zaio telebista ikustea: “Ez dute ingelesez hitz egiten, eta ez diet ulertzen”. Txistea egin du entzumen arazoak dituela azaltzeko ere.

Orain beste erritmo batean bizi arren, ez da geldirik egoteko emakumea izan Modesta, eta horren adierazgarri da oraintsu ar-



*Familia erretratua: Nicolas Egurrola senarra eta Modesta Fernandez de Jauregi, Mari Cresen, Rosendo, Mari Mertxe eta Blanki seme-alabekin.*

**11 urterekin laga zuen eskola, eta abarketak josten hasi zen**



te josten jardun izana. 92 urterekin josi zuen bere azken trajea, eta harro dio, gainera, "traje dotorea" egin zuela, bere bilobaren ezkontzarako. 11 urterekin laga zuen eskola, eta abarketak josten hasi zen, Arrietaneko abarketagintza tailerrean. Sei zentimo ordaintzen zizkieten dozena bat alpargataren truke. "Hogeita hamar egiten bagenituen, 1,80 ordaintzen ziguten", esan du Modestak, matematikak ahaztu ez zaizkiola agerian utziz.

Abarketen lantegia itxi zutenean josten ikasteari ekin zion, eta Altzolan atera zuen ebaketa eta jantzigintzako titulua. "Hamabost egunetan amaitu nituen liburuko ariketa guztiak, eta denak ondo, gainera. Irakaslea bera ere harrিতa laga nuen. Horixe zen, baina, nire zaletasuna eta oso erraz irteten zitzaidan". Gero etxean hasi zen jostun, eta alaben ezkontzetako soineko guztiak ere berak egin zituen. 92 urterekin utzi zion josteari. Orain dela berrogei urte buruko tronbosiak eman zion, eta gorputzeko eskuin aldearen mugikortasuna galdu zuen: "Ordutik bi ezker esku dauzkadala esaten dut".

Bistan da Modesta ez zela jaioko eskuak gurutzatuta bizitzeko. Bidaiatzea gustuko izan du beti, eta 80 urte bete zituenetik, hogeita bost aldiz bidaiatu du hegazkinez: "Ez dit beldurrik ematen; oso eroso da". Andaluziara, Kanariar uharteetara, Benidorm-era eta Balear uharteetara joan da, besteak beste.



*Modestaren lagunak: Goian: Isidora 'Kamiñerokua', Kontxita Azkue, Juanita 'Akei'. Behean: Maria Rementeria, Modesta, Frantziska 'Irunaso', eta Josefa 'Eguen Txiki'.*

### 36ko gerrak banandutako bikotea

Gasteiz ondoko Virgala Menor herrian jaioko zen Modesta 1910eko azaroaren 4an, eta 2 urte egin aurretik iritsi zen Elgoibarrera. Aitak San Pedroko fabrikari hasi zen lanean, eta

*Modesta eta Nicolas Benidorm-en, 1988an.*



*Jostun eskolako lagunak. Beheko ilaran erdiko da Modesta.*

hona etorri zen emaztearekin eta Modesta alabarekin. "Lau anai-arreben artean zaharrena eta txikiena naiz", esan du barrez. Txikitasunean handia, dudarik gabe.

1936. urte inguruan Nicolas Egurrola ezagutu zuen erromerian, gerora bere senarra izango zena. Bizkaitarra zen jaiotzez, baina Elgoibarko Arane baserrian zegoen morroi. 36ko gerra hasi zen, eta soldadu eraman zuten. Gerra amaitu arte itxaron behar izan zuten ezkontzeko. "Oso maiteminduta geunden, eta zerbait pasako balitzaio moja sartuko nintzen". Orain dela hamahiru urte alargundu zen, eta ez duela inor konkistatzeko asmorik adierazi du, umorerik galdu gabe.

1939an ezkondu ziren San Bartolome parrokian, eta akorduan dauka bere ezkon bidaia: "Donostiara joan ginen trenez, eta handik Burgosera". Berehala etorri ziren seme-alabak. Bost izan zituzten, baina azkena jaioko eta berehala hil zen. Begiak malkoz betetzen zaizkio momentu hura gogoratzean: "Neuk bakarrik dakit zenbat negar egin nion. Jaioko aurretik maitatzen dira umeak, eta gogorra izan zen. Laugarren umea zutik jaioko zen, eta azkena ere halaxe zetoirela iruditu zitzaidan. Baina ez, eskua atera zuen lehenengo, eta ezin izan zuten ezer egin. Hilda hartu nuen besoetan, eta sentsazio hura ez zait sekula ahaztuko. Izugarri polita zen umea! Lau seme-alaba neuzkan ordurako, baina...". Gaur egun, Elgoibarren bizi da bere alaba bat, Deban bestea, Burgosen hirugarrena eta semea, Ermuan. Harreman ona dauka guztiekin, eta pozik dio biloba eta birbiloba guztiak beragatik galdetzen dutela beti.

Aurpegiko zimurrek erakusten dute ehun urte horiek eman dutena, eta ez da gutxi izan. Baina zimur horien atzean, irribarrea da nagusi. 100 urte; mende bat egin du Modestak, sasoi betean.



*Modestak 90 urte egin zitueneko erretratua.*





BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Ainararen bahiketari buruz

Natura babesten eta AHTren aurkako borrokan, gutxi batzuren mesedetako proiektu horren aurkakoan, kide fina izan zara, baina ezerosoa batzuentzat. Horrela bakarrik ulertzen dugu zure bahiketa. Denok gara Ainara, denok bahitu gaituzte! Segi fin.

AHT EZ Elgoibar ☺

### Aupa, Ainara

Adreiluaren eta zementoaren basakeriaren harira egin dituzun ekarpenak beti eskertu ditugu. Bizitzaren paradoxak halakoak dira, baina. Orain zemento eta adreilu artean bahiturik egon arren, aurrerantzean ere, elkarren berri izaten eta lanean segi dezagun. Besarkada bat.

Okil Beltzak ☺

### Eskerrik asko

BARREN aldizkariaren adiskide maiteok:

Hemen nire agurtxo bat, ondo iruditzen bazaizue, zuen-gure BARREN maitearentzat.

Gustura irakurri dut, ohi dudanez, gure BARRENEN azken alea. Erabat nator bat Lucia Zabalarekin, merezia eta ondo merezia duela Luciano elgoibartarrak "gure miresmen eta esker ona adieraztea". Bai, horixe.

Hala ere, ezin esan nik: "Herri hotza da Elgoibar, bertako seme-alaba ezagunekiko behintzat". Burugabe hutsa nintzateke, neure anaia Angel Mari-Gotzoni Elgoibarrek egin dizkion omenaldiak

ahaztuta. Harritzeko esker beroa azaldu du gure herri maite Elgoibarrek. Neure egiten ditut, eta eskerrik onenaz, nire anaia Genarok omenaldi amaieran esandako hitzak: "Eskerrak eta eskerrak eman Gotzonen alde horrelako omenaldi ederrak eskaintzen ari zaretan Elgoibarko Udalari, erakundeei, taldeei eta elgoibartar guztioi".

Angel Mari-Gotzoni dagozkion hitzak, beraz. Hori izan zen-eta bere bizitzako azkeneko bi urteetan, gaixorik, behin eta berriz, etengabe errepikatzen zizkidan hitzak: "Eskerrak eman, Roman; eskertu denak!".

Asko dira, beraz, omenaldi ederrez goraiatuko nituzkeen elgoibartarrak: Don Antonio Arrilaga (badu kale bat); Satur, Plaza Txikiko publiketan gure maistra izan zena... Saturrek, gainera, mirari-milagro bat egin zuen nirekin: Jesuslagun-apaiz ikasketak amaitzean, nire senideen ondoren Satur bera nahi izan nuen agurtu eta eskertu, aurrez aurre. Eta han mirari-milagroa! Ez dut inoiz ahaztuko! Nik txikitari ezagutu nuen baina askoz gazteago aurkitu nuen. Nire txikitako oroimenean urte askoko maistra zen. Eta han, neure aurrean, andre oso gaztea ikusi nuen.

Amaitzeko, neuk ahalko banu, elgoibartar asko goraiatuko nituzke omenaldi ederrenaz. Izen handi gabeak, baina nire herri maitea egunero, mila eratan, baita euskaraz berba egiten ere, herri maitale maitagarria egin zutenak. Asko dira gizasemeak, eta emakumeak, batez ere, nire begien aurrean, oraintxe

bertan, maitasunik eta esker onenaz ikusten ditudanak.

Ea bada betetzen dugun denon artean anaia Genarok bere agurra amaitzeko egin zuen galdera: "Lortuko al dugu elgoibartarrok esaeren zerrendan beste hau ezartzea? Elgoibartar esker oneko". Hala bedi.

Roman Garate ☺

# Barren

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi | KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia | HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia | PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel | MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz | MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue | KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo.

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Iñigo  
Lazkano

Aurre-  
kuan, guk  
bixok,  
oso bizi-  
tza dife-  
rentiak izan  
arren, gauza oso  
inportante batian  
bat egitten degula  
pentsatzen arritu nintzan,  
Don Angel: mendararren sekretu



Anjel  
Bazterretxea

asko dakiguz gure lanaren ondorioz.

Korrespontsal naizenetik, makiña bat anekdota eta istorixo xe-  
lebre jakin dittut. Hamar hillabeteotan jende askokin batzartu naiz elkarriz-  
ketak egiteko, edo besterik gabe informaziua biltzeko. Ondorioz, gero pu-  
blikatu dan notizian inguruko beste “notizia B” mordotaz ere enteratu naiz.  
Horixe da gehixen gustatzen jatana, eta egunero kontatzeko modukua  
dan zeozeren billa mobittu arazten nauana. Hórrek danak, oso interesga-  
rixak eta jendiaren gustokuak izan arren, ezin dira publikatu, eta eskerrak!

Horrek, askotan, neure buruakin egonezin bat sortu izan ditt, ezin na-  
balako kontatu nakixana, baiña halakotan konfesioko sekretu bezala gor-

## “Korrespontsal naizenetik, makiña bat anekdota eta istorixo xeblebre jakin dittut”

detzia erabaki izan dot. Pentsatzen dot zuk ere sentsazio hori eukiko zen-  
duala noizbaitt. Seguraski aspaldixan ez zan jende asko konfesatuko. Ni  
adibidez ez naiz sekula konfesatu, ez behintzat lehengo eran. Behin, umia  
nintzarian, nere amak egin zuan intentua ni konfesatu arazteko  
baiña... Arantzazura juan giñan, eta konfesionarixo batera sartzeko gonbi-  
tta egin zidan. “Ni txabola horretara sartu, ezagutzen ez deten bati nere  
gaiztokerixak kontatzera? baitta zea ere!!!”. Ez zian gehixo sekula propo-  
satu. Lehen, oso ohikua zan konfesatzia, eta, ondorioz, zuk ere klase guz-  
tietako sekretuak izango dezuz: onak, txarrak, xeblebriak... Notizien *backs-  
tagea* ezagututa konklusio batera aillegatu naiz: Mendaron beste “fenome-  
no” eta “artista” ez dirala egongo inguruko herrixetan. Zer diñozu?

Neri esaten diazu sekreto asko izango di-  
ttudala herriko abadia naizelako. Aspaldi  
Mendaron mediku zaguanak esan zian: “Anjel,  
sartu berriz konfesionarixuan. Gaixo askok pillu  
bat gauza galdetzen dielako gaixotasunetik apar-  
te, eta askotan ez dakitt zer esan”. Sasoi baten gu-  
re eginkizunik haundienetako bat kristauak konfesa-  
tzia zan. Ez dakitt hainbeste bekatu egitten zan, baiña

egixa da bekatuarekin batera egoten ziala beste kezka asko  
ere. Eta jakiñaren gaiñian egoten zinen zelako gauzak gertatzen zi-  
ren inguruan. Eta burukomin batzuk ere sortzen zian noizian behin.  
Ejenplu bat jarriko det, neuri gertatutakoa: Ez zitaten ez Mendaron  
eta ez Mutrikun gertatu. Andra bat etorri zan konfesatzera eta esan  
zian: “Zu, nik bost ume dittut eta estu nabil eurak bihar dian bezela  
hazten, eta dudan no seigarrena etorriko ete zaten. Ba deskuiduan  
haurdun egoten banaiz, nik abortatu egingo det”. Ni artian abade  
gaztia nitzan, eta gure kristau-moralak abortua bekatu haunditza  
zeukan. Alde batetik, hori, eta, bestetik, ikusten nuan emakume  
haura oso larri zaguala. Estuasun haundixa zaukan, ezin zoan bes-  
te ume bat ekarri, oso larri bizi zian-eta. Nik ere ikusten noan zer pro-  
blema sortzen zitzakon emakumeari. Orduan esan nion: “Nola  
oraindik ez dakizun ziur zer gertatuko dan, zain egongo gera, eta  
gero hitz egingo degu”. Zorionez ez zen ezer gertatu, emakumia ez  
zagualako haurdun. Gaur, abortoari buruz eztabaida haundixak doz,  
eta asko kostatzen da erabaki ona hartzen. Baiña orduan beste gi-  
ro bat zaguan. Horregatik Iñigo, izango dezuz sekreto desberdinak,  
baiña sekreto gordetzailatzat hartzen bazaitue, seiñalia konfiantzaz-  
ko zeala, eta hori kualitate haundixa da.

## “Sekreto gordetzailatzat hartzen bazaitue, seiñalia konfiantzazkoa zeala”

Amaitzea nijua. Baten batek esaten baldinbeu ez detela ondo  
asmatu mutrikuarrez, ba esateko, hurrenguan hobeto eskribitzeko.



Elgoibarko Udala



Mendaroko Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO





**Dilma Rousseffek irabazi ditu Brasilgo presidentetzarako hauteskundeak, botoen %56rekin, eta bera izango da Brasilgo lehenengo presidente emakumezkoa.**

## Imajinatzen duzu Jaurlaritzan emakume batek agintzea?



**Fabri Hernandez**  
72 urte, jubilatua

Bai, zergatik ez? Nik ez dakit gizonetzko batek baino okerrago edo hobeto egingo lukeen, baina probatzea behintzat ez dut gaizki ikusten. Emakumeek erakutsi dute gizonek beste egin dezaketela. Batek daki ardura kargua hartutakoan zer egingo luketen, baina proba egingo nuke.



**Brigida Bustamante**  
70 urte, jubilatua

Nik uste dut gutxienez gizon batek beste egingo lukeela emakumeak. Gizon on baten atzean beti dago emakume bat. Esaerak ere hala dio, eta nik uste dut egia dela. Emakumeek lan handia egin dute ezkutuan, eta bada argitara irteteko ordua. Lekua egin behar zaie.



**Emilio Castro**  
66 urte, jubilatua

Bai, jakina. Nik neuk errespetu bera diet emakumeei eta gizonei, eta ardura kargurako balekoa dela erakusten badu behintzat, ez nuke arazorik izango. Emakumeek erakutsi duzue, gainera, balio duzuela. Hori pertsonaren arabera da, eta ez generoaren arabera.



**Elina Hyhnen**  
27 urte, etxeandrea

Bai, jakina. Ni Finlandiakoa naiz, eta han emakumezkoa da presidentea. Gizon on batek bezain ongi egin dezake emakume on batek. Eta, beharbada, hobeto ere bai. Emakumeok ikuspegi orokorrago bat daukagu, gizatiarragoa, eta hori ona da politikagintzarako.

ESKERTZA

### ENRIQUE PEREZ PEREZ



2010eko azaroaren 1ean hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

### ANGELITA ALCIBAR URIBARREN



2010eko urriaren 28an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





**Auto asko gaizki aparkatuta egoten dira Urasandin:** "Urasandin ez dago aparkatzeko leku askorik, eta obrak hasi dituztenetik, arazoa larriagoa da. Jendeak ahal duen lekuan aparkatzen du, baina askotan, benetan gaizki egoten dira autoak. Garaje mekanikoa dagoen lekuan, errebueltta itxi bat dago eta askotan errebuelttan bertan aparkatzen du jendeak. Horrez gain, jende askok espalo gainean lagatzen ditu autoak, eta zirkulazio arazoak sortzen dira. Errepidea bi norantzakoa da gune horretan, eta ez da egoten bi auto gurutzatzeko lekurik. Udaltzainek auzo hau gehiago zaindu behar luketela iruditzen zait".



**Umeek geratu egiten dituzte Errotaberriko eskailera mekanikoak:** "Errotaberriko eskailera mekanikoak geldirik egoten dira askotan. Arazoren bat dagoenean geratu ahal izateko botoia bista-bistan dago, eta askotan, umeek besterik gabe sakatzen dute. Lehen udaltzaingora deitu eta berehala jartzen zituzten eskailerak martxan. Orain, ordea, sistema berri bat dago, zuzenean Udaltzaingora abisatzen duena, baina udaltzainak ez dira lehen bezain bizkor etortzen eta denbora luze egoten dira eskailerak geldirik. Ez dakit zein den honen arduraduna, baina gure ustez, zerbait egin behar da".

**Mintxetako pista berria txakur kakaz beteta egoten da:** "Txakur jabe askok Mintxeta ingurura eramaten dituzte txakurrak, eta ondorioz, korrika egiteko pista berria kakaz beteta egoten da. Txakur jabe batzuk jasotzen dute kaka, baina beste askok dena hantxe lagatzen dute. Korrika egitera edo paseatzera joaten garenok txakur kaka artean ibili behar izaten dugu, eta hori ez da batere erosoa. Badakit gai hau kontrolatzea oso zaila dela, baina jabebei txakur kakak jasotzeko eskatzen diet".



Zuen kekak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barrene@igolbarkoizarra.com](mailto:barrene@igolbarkoizarra.com)  
948-74 41 12

Soraluzen **Gaztañerre Azoka 2010**

**Baserría Bizirik!**

**Azoka Eguna, azaroak 13**

asteazken zehar talo eta txalaparta ikastaroak, erlezaintzari buruzko hitzaldia, pilota partidak, edola ardo eta gazta dastaketa besteak beste...



## Elgoibarko eta Euskal Herriko jende ezagunak hartu du parte Arnaldo Otegiren aldeko erretratu kanpainan

Azaroaren 11n epaituko dute Otegi, Madrilen, Permach eta Alvarezekin batera

**A**rnaldo Otegiri atxikimendua erakusteko erretratu kanpaina jarri du martxan Arnaldo askatu, politika askatu plataformak, eta Elgoibarko zein Euskal Herriko jende ezagunak hartu du parte. Otegi Nabalcarneroko espetxean duen 8719600510 preso zenbakia eskuetan dutela atera dituzte erretratuak. Guztira, 56 argazki zintzilikatu dituzte plataformaren blogean. Beste askoren artean, Gerry Adams, Jose Luis Korta, Fermin Muguruza, Oskar Matute, Uxue Alberdi, Hasier Etxeberria, Jose Mari Larrañaga eta Edurne Lasa izan dira elgoibartarrari babesa erakutsi diotenak.

Arnaldo Otegi azaroaren 11n epaituko dute Madrilen, Permach eta Alvarezekin batera. Arnaldo Askatu, politika askatu taldeak autobusa jarri du Espainiako Auzitegi Nazionalera joateko. Ostiralean irtengo da autobusa Txankakuako zubitik, 4:00etan. Plataformaren sustatzaileek Otegi etxean nahi dute, senideekin. Euskal Herrian nahi dute, egoera berrian "haren ekarpena funtsezkoa" izango dela sinetsita daudelako. Hurrengo pausoa nazioartera begira emango dute, Batasuneko bozeramailea lehenbailehen aska dezaten eskatzeko.



## Sakelako telefonoak batuko dituzte Bidezko Merkataritzaren dendan

Erabilitako sakelako telefonoak batuko dituzte aurten Bidezko Merkataritzaren dendan, eta Parrokiako Misio Taldekoek telefono zaharrak dendara eramateko eskatu diete herritarrei. Garapenerako bidean dauden herrialdeei laguntzeko denda eguean zabaldu zuten, Merkatu Plazan. Bihar, zapatua, 10:00etatik 13:00etara egongo da zabalik.

## Elgoibarko odol emaileak omendu dituzte Elgetan



Gipuzkoako odol emaileak omendu zituzten urriaren 24an Elgetan, eta tartean, Elgoibarko hainbat lagunek ere jaso zuten odol emaileen intsignia. Hauek izan dira aurten omendu dituzten herritarrak:

25 aldiz eman dutenak: Maria Jesus Aldabalde, Pedro Alonso, Maria Jesus Apaolaza, Carlos Ayesta, Maria Dolores Beristain, Adela Cabanillas, Maria Luisa Lopez, Jesus Martin, Josu Mujika, Xabier San Martin, Yolanda Soto, Maria Asun Uriarte, Jose Mari Zabaleta eta Josu Zialtzeta.

40 aldiz eman dutenak: Mari Carmen Azkue, Juana Landa, Dolores Lozares, Luisa Mugertza eta Mari Jose Ubiria.

50 aldiz eman dutenak: Juan Carballo, Carmelo Lasuen, Angel Mari Miguez eta Juan Cruz Oteiza.

## Ekitaldia **Memoria historikoaren autobusa**



Gaur arratsaldean iritsiko da memoria historikoaren autobusa Elgoibarrrera. 18:00etatik 20:00etara bitartean egongo da Kultur Etxe aurrean, eta Elgoibar1936 taldekoek oroitzapen ekitaldia egingo dute 19:00etatik aurrera. Memoria historikoa berreskuratzeko asmoz abiatu zen autobusa urriaren 16an Mutrikutik, eta ordutik herriz herri dabil, frankistek hil zituzten herritarrek gogora ekartzen.

## Zenbakia **70**

Urruzuno auzoan egingo dituzten Babes Ofizialeko 70 etxebizitza zozketatu zituzten urriaren 28an. 253 lagun zeuden zerrendan, eta horietako 67k eskuratu zuten etxea. 57 etxebizitza 25 eta 35 urte bitartekoentzat ziren, eta elbarriuentzako hiru etxe zeuden gordeta, baina jaberik gabe geratu ziren. Etxebizitzak bi eta hiru logelakoak dira. Merkeenek 102.000 euro balio dituzte, eta 143.000 euro ingurukoak dira garestienek.

## Irudia **Olasoko kanposantua**

Domusantu eguna ospatzeko prestatu zen Olasoko kanposantua joan zen asteburuan. Azaroaren 1ean, astelehenean, izan zen Domusantu Eguna, eta eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, jende asko ibili zen hilerrian. Hildakoak omentzeko eguna izaten da azaroaren lehenengoa, eta bistan da ohitura zaharrari eusten dion jende asko dagoela oraindik.



## **Baserritarrak eta bezeroak gerturatzeari buruzko hitzaldia, egunean**

Basherri egitasmoa sortu du EHNEk (Euskal Herriko Nekazarien sindikatua), baserriko produktuak saltzen dituztenak eta erosleak gerturatzeko, eta horri buruzko hitzaldia eskainiko dute egunean. 19:00etan hasiko da hitzaldia, Kultur Etxean.

## **Jakinarazi dituzte elkartasun zozketako zenbaki irabazleak**

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak aste honetan atera ditu elkartasun zozketako zenbakiak. Hauek dira irabazleak: Lehenengo saria: 070.570 (ordezkoa, 063.592); bigarren saria: 035.373 (ordezkoa, 075.816) eta hirugarren saria: 047.816 (012.828).

## **IMHK eta Mekak Laneki lanbide heziketako on-line hiztegiari hartu du parte**

Laneki proiektuan eta Hiztegi teknikoan idazten parte hartu dute IMHK eta Mekak. Lanbide Heziketarako euskarazko lehen on-line hiztegi teknikoan lanbide-familiekin zerikusia duten 5.600 kontzeptu baino gehiago jaso dituzte. Proiektuak Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso du. Hiztegia debalde ikus daiteke honako helbide honetan: [www.jakinbai.com](http://www.jakinbai.com).

## **Azaroaren 23a, jubilatuen asteko bazkarirako izena emateko azken eguna**

Abenduaren 2an izango da jubilatuen asteko bazkaria, eta azaroaren 23an amaituko da izena emateko epea. Urtero bezala, 80 urtetik gorakoak eta urrezko ezteiak bete dituztenak daude bazkarira gonbidatuta. Jubilatuen asteko ekitaldiak azaroaren 30ean hasiko dira, eta abenduaren 5era arte iraungo dute.



# Danbaka lehiaketako bigarren kontzertua izango da gaur Elgetako Espaloian

Lau taldek hartuko dute parte Danbaka musika lehiaketako bigarren kontzertuan: hiru gipuzkoarrek eta bizkaitar batek. Kontzertua 22:30ean hasiko da, Elgetako Espaloia kafe antzokian. Sarrerak bost euro balio ditu (Gazte Txarlarekin, 3 euro). BARREn datozen kontzertuetarako sarrerak dauzkagu, oparitzeko. Zatoz eta eskatu!

## EL TRIO CALAVERA

Oñatiko taldea da. Igaro apirillean elkartu ziren Luis (Poetas Muertos taldekoa), Ekaitz (Nos la suda taldekoa) eta Beñat (Ez! Taldekoa) gitarra hiru-kote bat sortzeko. Rumba euskalduna dela esaten diete, baina letrak Luisenak direnez, eta honek euskaraz ez dakienez, 'rumba merkea' bezala izendatu zuten. Errealitateko egoerei eta maitasunari buruzko abestiak egiten dituzte, beti ere gitarra oinarriak eta gitarra bakarlariak errespetatuz.

## ROCK PRIVADO

German Uribe-Etxebarria (gitarra eta ahotsa), Adriana Besne (ahotsa), Juan Ignacio Manso (gitarra), Iñigo Arozena (teklatura), Victor Garcia (baxua) eta Andoni Regueiro (bateria) dira Rock Privado taldeko kideak. Pop-Rock musika egiten dute, eta bi disko dituzte kaleratuak. 2008an kaleratu zuten lehenengoa, eta aurten atera dute bigarrena. Taldeko abestiak Germanek konposatutakoak dira, eta benetako istorioetan oinarrituta daude.

## FRONT MALABAR

2009an sortu zen talde arrasatearra. Borja Sabas bilbotarra (gitarra eta ahotsa), Bachellors eta Porcelanea taldeetako partaide ohia; Josema Cabezas arrasatearra (bateria eta korduak), Malaña, Kumulo eta Carlos el Sucio taldeetako kide ohia; eta Aitor Angulo (baxua eta korduak), Mr. Danger taldeko kide ohia dira taldekideak. Egindako kanta guztiak ingelesezkoak dira. Soinu berezia eta gogor samarra zen arren, ez dute melodia ahazten.

## YMOTEK

Abadiñoko metal talde hau 2006an sortu zen. Taldeak aldateta batzuk izan dituen arren, egungo partaideak hauek dira: David Villarubia 'Villa' (ahotsa), Roberto Moisen 'Rober' (gitarra), Javier Villar 'Javivi' (bateria), Asier Otaduy 'Zana' (baxua) eta Ivan Esteban 'Randall' (gitarra). Euren bigarren kontzertuan, jada, 2006ko Aldapa maketa lehiaketa irabazi zuten (Berrizen, Bizkaian), eta iaiz Euskal Zarata Tour delakoan hartu zuten parte.



BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZALEA



www.danbaka.com




# DEKORAZIO

GEHIGARRIA

Aurtengo dekorazio gehigarrian sukalde eta bainugela eroso eta garbiak lortzeko gomendioak dituzue. Gainera, oihal desberdinen berri ere emango dizuegu, zuen etxeari ukitu pertsonalago bat emateko.

Aprobetxa ezazue udazkena, etxea zuen gustura jartzeko!





## Prestatu etxea udazkenerako

Etxea dekoratzeko eta pertsonalizatzeko aukera ezinhobea eskaintzen du oihalak. Uda amaitu da, eta orain, udazkenari aurre egiteko prestatu behar da etxea. Urtaro berri honetarako giroa eta klima sortu behar ditugu, eta oihalak lagunduko digu, modu erraz eta merkean etxea udazkenerako girotzen.



Norberak bere erara dekoratu dezake etxea, baina oihalen azken tendentziak ezagutzeko komenigarria izaten da profesionalen laguntza eskatzea.

Sektoreko profesionalak ehun naturalen aldeko apustua egiten dute: lihoa, kotoia, haria, seta eta larrua. Ehun horiek dekoraziorako aukera zabala eskaintzen dute, eta, gainera, urte sasoi honi epeltasuna ematen diote.

**IMAR**  
ARROZTEGIA

- Etxe barruko ateak eta blindatuak
- Tarimak eta parket flotatzaileak
- Horma-armairuak
- Sukaldeak eta etxetresna elektrikoak

Tel./Faxa: 943 531 471  
Mugikorrek: 609 054 978  
646 905 564  
Olaso poligonoa 15, 55 CH  
i\_rua@hotmail.com

**ETORRI ZAITEZ ETA ESKA EZAZU AURREKONTUA**

Lehen Aramar elektrizitatea, orain CARRANZA elektrizitatea

**CARRANZA, C.B.**  
ELEKTRIZITATEA

Tel.: 943 741 280  
Felix: 687 082 227  
Jose Luis: 626 555 999

- Instalazio elektrizitate orokorrak
- Instalazio industrialak
- Atezain eta bideo-atezain
- Eguzki energia
- Domotika

Morkaiko kalea, 1  
20870 Elgoibar  
(Gipuzkoa)

**E. ARANDIA**  
ERREFORMA ETA LEIHOAK

- Erreformak orokorrean (etxebizitza, garajeak, lokalak, ...)
- Debabarrenaeko leihoen montajea.

Urasandi, 22 behea - 20870 Elgoibar  
Tel.: 605 705 204 - Faxa: 943 743 372

**SANTANA**  
Igor Santana

- Amiantoa
- Fibrozementoa
- Gasa
- Berokuntza
- Klimatizazioa
- Elektrizitatea
- Eguzki energia

Urasandi kalea, 17, behea  
Tel.: 943 740 530  
605 714 905  
Faxa: 943 531 825  
igorsantana@euskalnet.net  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)



Oihalak bakarka edo nahastuta ere erabili daitezke, eta nahasketa horiek aukera asko ematen dute. Adituek oihal kontrajarriak elkarrekin nahasteko gomendioa egiten dute. Hau da, zakuaren tela belusarekin nahastu daiteke, edo lihoa setarekin. Hala ere, konbinazio ausartegiak gustuko ez dituztenek antzekotasun handiagoa duten ehunak nahastu ditzakete.



Koloreari dagokionean, aurtengo denboraldia ausart dator. Adituen esanetan, oihalak etxeko gela bakoitzaren beharretara egokitu behar dira. Hortaz, argitasuna emateko kolore argiko oihalak erabili behar dira, eta epeltasuna emateko, oihal leun eta trinkoak.



**CORDON VILARCAHO**

San Roke, 7 behea  
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modulos  
Tel. 943 748 570

**DEKORAZIOA**

Kanpo eta barneko estaldura  
Zolak-estaltza  
Lakadurak eguzt, aluminio, PVC  
Pintura-orkena






**PINTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixillon, 2 - 3. sotoa 943 74 36 52 - 74 27 88

**KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA**




**FONTANERÍA**



**Ibámar**  
ITURGINTZA

Bernardo Ezenarro kalea, 2 behea  
Erakusketa/Faxa: 943 531 847  
Floren Cid: 647 463 436  
E-posta: [ibamar@euskalnet.net](mailto:ibamar@euskalnet.net)

- BEROGAILUA
- GASA
- GASOILA
- AIRE EGOKITUA
- ALTZARIAK
- MANPARAK
- OSAGAIK
- ERREFORMAK
- GREMIOEN KORDINAZIOA





## Bainurako bost joera

### ZEURE ETXEAN SPA BAT SORTZEKO IDEIAK

Bainugelek gero eta garrantzia handiagoa dute gure etxeetan. Eta ez da harritzekoa. Izan ere, eguneroko errutinatik ihes egiteko aukera paregabea eskaintzen digute gaur egungo bainugela modernoek. Atsedena hartu eta erlaxatzeko leku paregabea da bainugela.

Ezaugarri berezietako komunak, apar artean bainu lasaigarria hartzeko aukera eskaintzen duten bainera zabalak, apaingarriak, lore lehorrak, garbitzeko errazak diren estaldurak... Hori eta gehiago jaso dugu joera berritzaileen inguruko erreportaje honetan.



➤ Erritmo bizian bizi gara. Goizean goizetik hara eta hona gabiltza, atsedena hartzeko tarterik gabe. Horregatik, ezinbestekoa zaigu etxean atsedena hartzeko leku egoki bat izatea. Eta askotan oharkabean pasatzen zaizkigun arren, detaile txikiek asko lagundu diezagukete horretan. Lurrindun kandelak, adibidez, aukera ona dira.

➤ Bainugeletan minimalismoak indar handia dauka. Tono neutroak, edota egur naturalaren eta lakatuen arteko konbinazioak oso egokiak dira. Harri itxurako estaldurak ere aukera paregabea dira.

# PAGOERROTA

*iturgintza*

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza



Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)

Tel.: 943 75 60 44 - Faxa: 943 75 60 37 - Mugikorra: 659 334 323

E-mail: [pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com](mailto:pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com) - [www.pagoerrotaiturgintza.com](http://www.pagoerrotaiturgintza.com)



➤ Lekuari ahalik eta etekin handiena atera behar zaio. Hori dela-eta, tiradera higigarriak indar handia hartu dute, askoz gauza gehiago sartzen direlako haietan.

➤ Bakterioren kontrako material berriak egokiak dira oso bainugeletarako. Garbitzen errazak dira, eta kolore sorta zabala eskaintzen dute. Urre koloreko materialen zein zilar kolorekoen aldeko apustua egingo dugu.



➤ Lur kolorean lakatutako altzariak moda-modan daude. Urdin turkesa kolorea eta kolore leunak ondo onartzen dituzte altzari horiek. Azken ukitu bat emateko, diseinuzko txorrotak eta komun erdian jartzen diren bainuontzi klasikoak aukera ona dira.



**OSOKA**

## ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA

*Oihane Osoro Kaperotxipi*

- ☐ ALTZARIAK NEURRIRA
- ☐ HORMA-ARMAIRUAK
- ☐ ALTZARIAK: KOMUNERAKO, SUKALDERAKO, EGONGELARAKO,...
- ☐ ATEAK
- ☐ ZORUAK
- ☐ ERREFORMAK

**Zatoz eta eskatu informazioa konpromezurik gabe**





San Frantzisko, 54 behea  
20870 ELGOIBAR  
Tel. / Faxa: 943 748 918  
Mugikorra: 687 694 264



## Arriskurik gabeko bainugela bat eraikitzeko **aholkuak**



### HORMAN SARTUTAKO OSAGIAK AUKERATU

Bainugelako ertzak garbitzeko makurtzea edota luzatzea gero eta zailagoa egiten zaigu adinarekin. Horman esegitako altzariak jarriz gero, espazio zabalagoa lortuko dugu, eta gainera, garbitzeko ere errazago egingo zaigu, lurlean pilatzen delako zikinkeria gehien.

### TERMOSTATODUN TXORROT SEGURUAK AUKERATU

Mando bakarreko txorrotak jarri ditzakezu, askoz errazagoak direlako erabiltzeko. Eskumuturrean eta atzaparretan indar gutxi duten pertsonentzako, esate baterako, oso lagungarriak izan daitezke.

Era berean, kontrol termostatikoko txorrotak jarrita, ur beroari lotutako arrisku batzuk saihas ditzakegu, urarekin



erretzea, esate baterako. Attitude eta Ideal Standarden Ceratherm 100 eta 50ek Cool body delako teknologia eskaintzen dute, adibidez. Txorrotak lar berotzea eragozten du teknologia horrek.

Luis F. Beristain  
korporazioa  
**XEY** **FORMA**  
banatzaile ofiziala

**ETXEKIT**  
12 urteko bermea Arrillaga z/g - Elgoibar - Tel. 943 74 43 47



#### **BAINUONTZIA ETA DUTXA EGOKIAK AUKERATZEKO AHOLKUAK**

Ez ezazu oso bainuontzi altuen alde egin. Bainugelan alturan alde handiko elementuak jartzea arriskutsua izan daiteke, estropezu egin dezakegulako.

Badira ohikoak baino apur bat txikiagoak diren bainuontziak, eta horrek oso egokiak egiten ditu bereziki adineko jendearentzako eta umeentzako.

Bainugela guztietan, baina, ez da izaten bainuontzia jartzeko adina leku. Dutxa bat jartzekotan bazara, aukeratu koskarik eta ertz zorrotzik gabeko bat, errazago sartu eta

irteteko. Gurpildun aukia dutenentzako aukera paregabea dira.

Bainuontzian edota dutxan laprast ez egiteko kapa itsasgarri bat ematea aholkatzen dute diseinuan aditu direnek. Badira irrist ez egiteko estaldura bereziak, oso kontuan hartu beharrekoak. Bainuontzi nahiz dutxa akriliko guztietan aplikatu daitezke kapa itsasgarri horiek, eta alfonbra txikien eta kolore eta forma askotako zinta itsasgarrien aldean, eleganteak dira. Izan ere, gardenak izaten dira, koloregabeak.

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**

Arragueta 12 - EIBAR - Tel.: 943 200 698  
Errosario 15 - ELGOIBAR - Tel.: 943 744 019

**PROIEKTU  
ETA  
ERREFORMAK**







nu-van 2003



nu-van 2010

## proiektu eta altzariak

ETXEA ALTZARIZ JANZTEAZ GAIN PROIEKTU INTEGRALAK ERE EGITEN DITUGU;  
HORI LORTZEKO DISTRIBUZIO ALDAKETAK,  
GREMIOAK GEUK KOORDINATU ETA 3DKO PLANOAK ERE ERABILTZEN DITUGU.

[www.santos.com](http://www.santos.com)  
[www.clei.it](http://www.clei.it)  
[www.stokke.com](http://www.stokke.com)  
[www.lemamobili.com](http://www.lemamobili.com)  
[www.jesse.it](http://www.jesse.it)  
[www.veradoitalia.it](http://www.veradoitalia.it)  
[www.kristalia.it](http://www.kristalia.it)  
[www.novamobili.it](http://www.novamobili.it)  
[www.arketipo.com](http://www.arketipo.com)  
[www.grassoler.com](http://www.grassoler.com)  
[www.sancal.com](http://www.sancal.com)  
[www.porada.it](http://www.porada.it)  
[www.bolon.com](http://www.bolon.com)  
[www.carpyen.com](http://www.carpyen.com)  
[www.vibia.es](http://www.vibia.es)  
[www.marset.com](http://www.marset.com)  
[www.icosmic.com](http://www.icosmic.com)



**ORAIN** 1. Lantoki bakoitzerako argi egokia 2. Estalitako instalazioa 3. Guztiz zabaltzen diren kajoiak 4. Guztiz zabaltzen diren zoko-armairuak 5. Hondakinentzako kajoiak 6. Gosari-pertsiana **LEHEN** 1. Argi bakarra sabaian 2. Hodiak agerian 3. Sukaldegainekoa elementuz beteta 4. Kontsumo handiko etxetresna elektrikoak 5. Biltegitratzea oztopatzen duten ateak 6. Zaborrontzia agerian, altzarietatik kanpo

Basarte, 3 ♦ Tel.: 943 033 672  
Bernardo Ezenarro, 17 ♦ Tel.: 943 747 414

# ‘Hitzen uberan’ literaturari buruzko webgunea sortu dute Uxue Alberdik eta Oier Guillanek

Literatura bizitzeko modu ezberdinak jaso dituzte webgunean, Uxue Alberdiren arabera

Literaturaren gaineko webgunea sortu dute Uxue Alberdik eta Oier Guillanek: *Hitzen ubera* ([www.uberan.org](http://www.uberan.org)). EIE Euskal Idazleen Elkarteak ekoiztutako webgunea da, eta Alberdik eta Guillanek kudeatuko dute aurrerantzean, kolaboratzaile sare zabal eta ireki baten laguntzaz. Kolaboratzaileen artean daude Antton Alberdi elgoibartarra, diseinuaren egilea, eta Idoia Beratarbide, webgune hondeotako irudien egilea. Proiektuari forma emateko, idazleak, editoreak, ilustratzaileak, sareko komunikazioko adituak eta beste izan dituzte aholkulari.

Uxue Alberdik **BERRIA** egunkariari esandakoaren arabera, hiru ardatz nagusi izango ditu webguneak: «Eduki sortzaileak eta albisteak, biltegia, eta ipar orratza. Eduki sortzaileak eta albisteak guk edo kofradiako kideek [webgunean erregistratutako erabiltzaileek] sareraturutakoak izango dira. Biltegiari dagokionez, Gaztetan gordeak atalean Testuketan irratsaioko elkarrizketa eta kolaborazio guztien audioak jaso ditugu, eta orain egiten ditugun elkarrizketa eta erreportaje berriak ere hor gordetzen joango gara. Hirugarren ardatzean, ipar orratzarenean, beste hedabidee-



tan literaturaren inguruan agertzen den guztiaren berri ematen saiatuko gara».

Literatura bizitzeko modu ezberdinak jaso nahi izan dituzte webgunean, eta bide batez, haien arteko harremanak sortzea.

## Anarik itxi du ‘Euskara ala ezkara’ hitzaldi zikloa



Anari abeslariak (Azkoitia, 1970) itxi zuen eguaztenean ‘Euskara ala ezkara’ hitzaldi zikloa, hitza eta musika uztartu zituen saioarekin. Punta-puntako hizlariak izan dira aurtien ere: Andoni Egaña, Anjel Lertxundi eta Anari bera, eta Kultur Etxeko hitzaldi gela bete egin da hiru saioetan. Era berean, lehenengo bi saioak Internetez ere jarraitu ahal izan ziren [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) webgunean, eta jarraipen handia izan zuten, gainera. Antolatzaileek, Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak, balorazio positiboa egin dute hitzaldi zikloaren gainean.

## ‘Potoa egin nuenekoa’ diskoa kaleratu du Andrankanek

Disko berria kaleratu du Andrankanek: *Potoa egin nuenekoa*. Iban Urizar, Patxi Zabaleta, Carlos Gebrian, Andoni Mujika eta Rafa Furnierrek osatzen dute taldea –Jon Gurrutxagaren ordeztatu da Furnier taldean–. Gurrutxaga diskoa grabatu arte egon da Andrankanen, baina orain Jon&Sugramas proiektu berrian ari da burubelari. Pop eta folk ukituko musika egiten du boskote honek, eta Azkoitian grabatu dute azkeneko lana, Katarain estudioetan. Diskoa Iratxo tabernan daukazue salgai, 5 eurotan, baina [www.andrankan.com](http://www.andrankan.com) helbidean edota [sinuouse@gmail.com](mailto:sinuouse@gmail.com) helbide elektronikora idatzita ere eskura dezakezue.

## ‘Datozen egunak’ diskoa jarri du Interneten Mikel Cornejok

Bosgarren abesti bilduma igo du myspaceara ([www.myspace.com/c69projeckt](http://www.myspace.com/c69projeckt)) Mikel Cornejok, C69 izenarekin. 16 abestiko lana da *Datozen egunak*. Azken urteotako abestiak eta abesti berriak uztartu ditu disko horretan, denak ere elektro-pop estilokoak, egilea bera etiketen oso zalea ez bada ere. “Entzuteko abesti errazak” direla dio Cornejok. Lan guztiak Interneten jarri ditu orain arte, eta horren arrazoia garbi azaldu du: “Ezjakintasunagatik dela uste dut, ziur ez dakit-eta zer egin behar den disko bat ateratzeko”.



## ‘Xabinaitor’ taularatuko du gaur Gorringo taldeak, Patxi Gallegoren komikietan oinarritutako antzezlan

Anartz Zuazuak zuzendu du antzezlan, eta aktoreak Wazemank saiokoak dira




**X**abinaitor antzezlan taularatuko du Gorringo Taldeak gaur Herriko Antzokian, 20:30ean. Anartz Zuazuak (Donostia, 1973) zuzendutako antzezlan da, baina obra bera Patxi Gallegoren (1973, Errenteria) komikietan oinarritutakoa da. Funtsean, neska edo poxpolin euskaldunak salbatzeko superbotereak dituela konturatuko den mutilaren istorio

umoretsua da *Xabinaitor*. Antzezleak, berriaz, Euskal Telebistako *Wazemank* saio arrakastatsuko protagonistak dira, orain urte batzuk *Kutxidazu bidea*, *Ixabel* antzezlanarekin sona handia lortu zutenak, hain justu ere.

Obrako protagonista nagusia euskal super heroi bat da, edertasun femeninoa gurtzeko beti prest dagoen super heroi. Su-

perman, Batman, Spiderman... atzean geratu da super heroi horien garaia. Xabinaitor euskalduna da, EGA titulua daukan euskalduna. Mikel Pagadizabal aktoreak betetzen du Xabinaitoren papera, eta bai berak zein Anjel Alkain aktoreak nabarmendu dute ironia dela antzezlanaren ezaugarri nagusia, eta ikusleak barre egitea euren helburua.

## ‘Todos somos diferentes’ argazki lehiaketa irabazi du Jairo Berbelek



*Todos somos diferentes* (Denok gara ezberdinak) argazki, ipuin eta kontaketa laburren lehiaketa irabazi berri du Jairo Berbel elgoibartarrak, Kongon orain urtebete inguru egin zuen argazki batekin. *Afrikako haurtzaroaren ibilbide luzea* izenburua jarri zion Berbelek orain saritu duten argazkiari, eta irudian, neskato bat ageri da, bizkarrean aitzurra hartuta. Argazki horrengatik 1.500 euro jasoko ditu Jairo Berbelek, Madrilan egingo duten sari banaketan.

Giza Eskubideen Batzarrak antolatutako lehiaketa da *Todos somos diferentes*. Lehiaketan, lanen kalitate artistikoaz gainera, arrazakeria eta intolerantzia egoerakiko sentsibilitate berezia erakusten duten lanak edota egoera horiek salatzen dituzten lanak hartzen dituzte aintzat. Honako webgune honetan ikus ditzakezue saritutako lanak: [www.civilia.es](http://www.civilia.es).

### Dokumentala, estreinatzeko gertu

Tomas Madinabeitia apaiz eta misiolariak Kongon azken urteotan egin duen lana ezagutzera eta hari laguntzera joan zen Berbel Afrikara, 2009ko udan. Han ikusi eta bizitakoekin “txundituta eta hunkituta” itzuli zen etxera, eta Kongora egindako bidaia hartan egindako argazkiekin eta hartutako irudiekin “*El lugar de las sonrisas*” izeneko dokumentala ere osatu du. Dokumental hori Herriko Antzokian emango dute datorren urtean: urtarrilaren 17an eta 21ean.

# Perretxiko erakusketa antolatu du Karakate elkarteak etzirako, azaroaren 7rako

Aranzadi Zientzia Elkartekoek sailkatuko dituzte Elgoibar inguruan batutako perretxikoak

**G**aur eta bihar goizean inguruko mendietan batzen dituzten perretxikoekin erakusketa bat antolatuko dute etzi Karakate elkarteok, Kultur Etxeko sotoan. Laugarren urtea da perretxiko erakusketa antolatzen dutena, eta aurten ere Aranzadi Zientzia Elkarteko laguntza izango dute. “Guk batzen ditugun perretxikoei izenak jarriko dizkiete, eta haien ezaugarri nagusien berri emango digute. Jateko modukoak diren edo ez argituko digute, horixe izaten da-eta jendea gehien interesatzen zaiona”, argitu du Jose Agustin Olaso Karakate elkarteok.

Perretxikoen ezaugarrien gaineko informazioa emateaz aparte, baina, perretxiko biltzaileek kontuan hartzeko moduko beste hainbat argibide ere emango dituzte erakusketa horretan: “Zelan batu behar diren azalduko dugu, eta mendian nola ibili behar den. Gero eta perretxiko gutxiago dago mendian, eta zentzuz jokatzeko ez badugu, itsaso-



an gertatzen ari dena gertatuko zaigu mendian ere. Hau da, iritsiko da jateko moduko perretxikorik egongo ez den eguna”, nabarmendu du Olasolok.

Domekan izango da erakusketa nagusi hori, Kultur Etxeko sotoan. Goize-

an, 11etatik 14:00etara egongo da zabalik, eta arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara. Astelehenean, berriz, eskola umeen txanda izango da. Karakate elkarteok nahi beste argibide emango dizkiete gaztetxoei.


## Jende asko batu zen azken zapatuko ferian Elgoibarko Izarrak jarritako txosnaren bueltan



Elgoibarko Izarra kultur elkarteak hartu zuen zapatuan hileko azken zapatuko feriarako txosnaren ardura. Elgoibarko baserrietako produktuekin egindako haragizko brotxeta eta txistorra pintxoak prestatu zituzten, eta jendea erruz inguratu zen Nafarroa Plazan jarritako txosnara. Atxutxiamaiak umeentzako prestatu zituen jolas eta tailerrek ere lagundu zuten giroa berotzen, baseritarren festa antolatu zutelako propio feriarako.

## Aire libreko margo lehiaketako lanen erakusketa Mendaron

Aire libreko margo lehiaketara aurkeztu zirenen lanekin erakusketa osatu dute Mendaron, eta bihartik hilaren 14ra arte egongo da ikusgai, Lagun Betikoan lokalean. Zapatu eta domeketan zabalduko dute, 12:00etatik 14:00etara.






## Maite Maiorak bigarren egin du Azpeitiko herriarteko kross mistoan

24:29ko denboran osatu du 6,7 kilometroko ibilbidea

**A**zpeitiko herriarteko bigarren kros mistoa jokatu zen zapatuan, eta Maite Maiora mendarorak bigarren egin zuen, Aritz Ruiz de la Torre debarrarekin batera. 6,7 kilometroko ibilbidea zen, eta guztira 171 bikotek parte hartu zuten. Maitek eta Aritzek 24:29ko denboran osatu zuten ibilbidea; kilometroa 3 minutu eta 39 segundotan. Mitxel Cuadrado eta Maider Gaztañaga ordiziarrek irabazi zuten lasterketa (24:00).

Elgoibartik eta Mendarotik ordezkaritza zabala joan zen Azpeitira. Hona hemen beste bikoteek egindako denborak:

|                                   |       |
|-----------------------------------|-------|
| Agurtzane Arriola-Iñigo Aranbarri | 31:11 |
| Laura Legarra-Iñaki Gil           | 33:35 |
| Maider Blasco-Goiatz Leibar       | 33:47 |
| Kristina Beristain-Carlos Ayesta  | 34:38 |
| Olatz Telletxea-Jon Ulibarri      | 35:44 |



## Azaroaren 20an jokatu da Karakateko Igoera

Urtero legez, Behobia-Donostia lasterketa herrikoia ostean jokatu da Karakateko Igoera: azaroaren 20an. Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatzen du Karakateko Igoera, urteik urtera entzute handiagoa hartzen ari den proba. Iaz, esate baterako, inoizko parte-hartze handiena izan zen: 58 lagun. Oier Ibarbia zizurkildarra nagusitu zen (30:47) gizonezkoetan, eta Nerea Amilibia aiarra emakumezkoetan (38:48). Lehenengo elgoibartarra, berriz, Haritz Arrieta izan zen. Laugarren postuan saikatu zen Arrieta, 31:07ko denborarekin.

Karakateko Igoera jokatu eta hurrengo zapatuan, hilaren 27an, berriz, Alkortako Igoera jokatu da Mendaron. Iñigo Lazkano mendarorak irabazi zuen iaz (21:07), baina Joseba Plaza markinarrek dauka errekorra (20:43).

## BARRENen aldeko BONOAK erosteko:

- BARREN astekarian (Nafarroa plaza)
- Elgoibarko Izarran (Ubitarte 4)
- E-postaz eta telefonoz:

943 741 626

[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com)



Bonoa erosten duten guztien artean, Belaustegi jatetxean bi lagunentzako dastatze-menua zozketatuko dugu

BARRENen aldeko bonoak saltzeko prest al zaude? Deitu edo idatzi Elgoibarko Izarrara eta benetan estimatuko dizugu. Eskerrik asko!

ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA



Ni ere banaiz  
**BARREN!**

# Elkartearen inguruko gogoeta saioa antolatu du Morkaikok hilaren 13rako

Elkartearen egungo izatea eta filosofia aztertuko dituzte

Zertarako nahi eta behar dugu Morkaiko Mendizale Elkartea elgoibartarrok? Galdera horri erantzuteko, gogoeta jardunaldi bat antolatu du Morkaikok, Elgoibarko mendi taldeak. Bihar zortzi, azaroaren 13an, egingo dute bilkura hori Sallobente-Ermuarango Azaola base-rrian.

“Badira urte batzuk Morkaikok antolatutako jarduera eta irteeretera jende bera datorrena; jende gutxi izaten da normalean, eta nekez etortzen da jende berria. Kontu honek kezkatu egiten gaitu, eta, zuokin batera, Morkaikoren etorkizunaren gaineko gogoeta egin nahi dugu. Elgoibarko mendizaleok el-

kartu, eta gure elkarteak zer funtzio bete behar duen aztertuko dugu denon artean”, dio mendi taldekoek BARRENERA bidalitako ohar-rrak.

Sallobente-Ermuarango Azaola base-rrian egingo dute gogoeta saio hori, eta bazkide guztiak gonbidatu dituzte. Bazkideek azaroaren 4rako jakinarazi behar dute gogoeta saiora agertuko diren ala ez. Joatea erabakitzen dutenak Txarridunako errotondan batuko dira, 9:00etan. Gogoeta jardunaldia egun guztikoa izan daitekeela aurreikusitute, eta hala, baserrian bertan bazkaltzeko aukera eskainiko diete hausnarketa saio horretara agertzen direnei.

## Elgoibarko 40-15 tenis eskolak hasi du ikasturtea



Elgoibarko 40-15 tenis eskolan hasi dute ikasturte berria. Urrian hasi zituzten eskolak hamasei lagunek, lau taldetan banatuta. Tenis eskolak astelehen eta eguaztenetan izaten dira, 17:45etatik 21:45ak bitartean, Mintxetako tenis pistan, eta antolatzaileen arabera, ikasleek “gogotsu” hasi dute ikasturtea. Tenis eskolan izena eman nahi duenak badu horretarako aukera oraindik, hala ere. Izena emateko nahiz informazio gehiago jasotzeko: 670 665 797.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 2 – Santurtzi 2 (3.maila)  
Urola 0 – Elgoibar 0 (1. erreg.)  
Elgoibar 2 – Urola 0 (Jub.)  
Elgoibar 1 – Urki 2 (Kad B.)  
Eibartarrak 0 – Elgoibar 9 (Kad. A)  
Eibar 7 – Elgoibar 1 (Infantilak)  
Elgoibar 3 – Eibar 2 (Infantil txiki)  
Bergara 6 – Elgoibar 2 (Alebinak)

### ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa  
Mundarro 22 – Lagunak 17 (1. maila jub.)  
Lagunak 22 – Bergara 11 (2. maila kad.)  
Lagunak 23 – Beloki 25 (3. maila nag.) PALA  
Goierri 25 – Lagunak 17 (3. maila nag.) PALA

### ARETO FUTBOLA

San Jorge Santurtzi 3 – Concepto Createch (Eg.) 4  
King Kong kafetegia (Eg.) 5 – Erain 3

### ESKUBALOA

Alkorta 39 – Decotena Pulpo 9 (Sen. mut.)  
Beristain 37 – Pulpo 27 (Jub. mut.)  
Txarriduna 37 – Ordizia 28 (Kad. mut.)  
IMH 28 – Aiala 24 (Kad. nesk.)  
Lek Arrasate 23 – Aterpe 19 (Inf. mut.)  
C.Astigarraga 25 – Iklus 5 (Inf. nesk.)  
Usurbil 17 – Grupo Eibar 24 (Jub. nesk.)  
Usurbil 29 – Lauko 34 (Kad. nesk.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroledegian)

Zapatua, 6  
16:00 Concepto Createch – Transportes Lakuntza

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 6  
10:00 Elgoibar – Aretxabaleta (Infantilak)  
12:00 Elgoibar (Kadete A) – Elgoibar (Kadete B)  
16:00 Elgoibar – Urnieta (Reg. prefe.)  
18:15 Elgoibar – Mondra (Jubenilak)

### ESKUBALOA (Kiroledegian)

Zapatua, 6  
10:30 Iklus – Arrate Amaña (Inf. nesk.)  
11:45 Aterpe – Arrate A (Inf. mut.)  
18:00 Lauko – Zuazo (Kad. nesk.)  
19:30 G.Eibar – Zuazo (Jub. nesk.)

### Domekia, 7

10:30 Bankoa – Arrasate (Inf. mut.)  
12:00 Tecnifuelle – Logrobus (Sen. nesk.)**ESKU**

### PILOTA (Ikastolako frontoian)

Barixakua, 5  
Esku pilota  
21:45 Lagunak – Igeldo (1. maila nag.)  
Pala  
22:30 Lagunak – Alde Zaharra (3. maila nag.)

## URKOTRONIK SARIA

|                 |    |
|-----------------|----|
| 1. Alex .....   | 22 |
| 2. Colo .....   | 16 |
| 3. Tarra .....  | 15 |
| 4. Guinea ..... | 10 |
| 5. Egoitz ..... | 8  |
| 6. Pousa .....  | 7  |



**LANA**

**ESKAERA**

- Neska gaztea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, edo dendan lan egiteko. ☎ **696 588 852**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. ☎ **673 875 123**
- Ikasle gaztea asteburuetan lan egiteko prest: ostalaritzan edo umei ikasten laguntzen. ☎ **608 686 814**
- Gizon gaztea txofer lanak egiteko prest. 3.500 kilora arteko ibilgailuak gidatzeko baimena. ☎ **650 538 274**
- Emakumea eskaintzen da egunez zein gauzez gaixoak edo umeak zaintzeko. ☎ **680 223 378**
- Gizona eskaintzen da baserriko lanetarako eta zerbitzari edo sukalde laguntzaile lanetarako. ☎ **686 077 316**
- Neska eskaintzen da 17:00etatik aurrera edo asteburuetan lan egiteko. ☎ **646 821 678**
- Mutila edozein lanetarako prest. ☎ **646 260 220**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko. ☎ **699 609 190**
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka. ☎ **626 490 986**

- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. ☎ **686 578 228**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 12:00etatik aurrera. ☎ **690 202 181**
- Neska gaztea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. ☎ **686 234 612**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ **669 311 385**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ **636 362 251**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **696 246 962**

**ESKAITZA**

- Zerbitzaria behar da asteburuetan tabernan lan egiteko. Astean hamabost ordu. ☎ **615 761 463**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA ETA SALMENTA**

- Etxea salgai Santa Ana kalean. Altzariek, berritua eguzkitsua. Igogailuarekin eta bizitzera sartzeko moduan. 130.000 euro. ☎ **943 742 131 (20:00etatik aurrera)**

- Pisia salgai Santa Klaran. 96m<sup>2</sup> eta dena kanpoaldera begira. Ganbara eta igogailua. ☎ **664 585 369**
- Pisia salgai Mendaron, Azpilgoetan. 75m<sup>2</sup>. Igogailuarekin eta trastelekuarekin. Eguzkitsua eta dena kanpoaldera begira. 170.000 euro. ☎ **655 746 480**
- Etxebizitza alokatzen dut Ubitarten. Bi logela, sukalde-egongela handia eta berogailua. Egoera onean. ☎ **943 742 442**

**AUTOAK ETA GARAJEAK**

- Garajea alokatzen da Pista Beltzaren azpian. Autoa garbitzeko aukera eskaintzen du, garbigailua dauka. Oso merke. ☎ **679 843 332**
- Garajeak alokatzen dira Jausoron, Udaletxearen aldamenean. ☎ **672 422 237**
- Garajea alokatzen dut San Roke 5ean. ☎ **943 741 837**

**BESTELAKOAK**

- Umearen txamarra beltza galdu dut, Kirolegia eta Basarte artean. Norbaitek aurkitu badu, utzi dezala udaltzaingoa.

**BERRIA egunkariarekin DOAN**

**Munduaren bilakaera Euskal Herriko historiaren bidez ezagutzeko liburua**

**Gure errealitatea ezagutzeko oso ballagarria**

Euskal Herriko historiaren urats nagusiak biltzen dira atlas honetan. Historiaurretik gaur egunera bitarteko hainbat gertakari ezagutzeko kontakizuna da. Horretarako, inulda baliabide garrantzitsua da: ehunka argazki, marrazki eta mapaz gain, hainbat eskema eta jakingari agertzen dira, gure herriko historiaren ikuspegi orokorra eta argia izan dezagun.

**Azaroak 5, ostirala,**  
karpeta eta lehenengo fitxak zure kioskoan  
**EGUNERO FITXA BAT; 20 ENTREGA.**

**Aukera ezazu, BIZI EUSKARAZ berria**



• Zorionak, **amama!** Bada-  
kit pixkat trastua naizela,  
baina asko maite zaitut.



• Zorionak, **Danel**, bihar 2  
urte egingo dituzulako.  
Muxu potolo bat etxekoan  
eta bereziki, Naroaren par-  
tez.



• Asteartean gure etxeko  
bihurritxoak "ti"(bi) urte!  
Zorionak, **Ekain**, eta muxu  
potolo pila bat etxeko  
guztien partez!



• Zorionak, **potxoli**, zure  
hirugarren urtebetetzean.  
Muxu handi bat, Monika,  
Roberto, eta bereziki Du-  
naren partez.



• Zorionak, **Luken**, astear-  
tean urtebete egin zenuela-  
ko. Muxu handi bat etxeko-  
en partez.



• Zorionak, **Ane**, datorren  
astelehenean 6 urte egingo  
dituzulako. Etxekoan, eta  
bereziki Nere, Aritz eta  
Maialenen partez.



• Zorionak, **Danel**, 5 urte  
egingo dituzulako. Muxuak  
etxekoan, eta bereziki Aro-  
aren partez.



• Zorionak, **Elenal** Azkenean  
iritsi da eguna. Ondo  
pasa igandean, zure hiru-  
garren urtebetetzean. Aita  
eta amaren partez, muxu!



• Zorionak, **bikotel** Oso ondo  
pasa zuen ezkontza egu-  
nean! Patxo handi bat familiakoan  
eta koadrilakoan par-  
tez!



• Elosuko Jose Marik eta Mirenek  
50 urte elkarrekin  
igaro dituztela eta, azaroaren  
1ean elkartu ginen urrez-  
ko ezteiak ospatzeko. Zorionak,  
**bikotel** Segi horrela!  
Familiakoan partez, muxu bana.



• Zorionak, **Nahia eta Mari Jose**,  
hilaren 8an urteak  
egingo dituzuelako. Familiakoan  
eta lagunien partez.



• Zorionak, **bikotel** Azkenean  
iritsi da eguna! Ondo pa-  
sa, etxekoan partez.

**Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.**

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri beharduzu.

BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edobarren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



**URBERU SAGARDOTEGIA**

**Haragia eta arraina parrillan: berezitasuna  
Astebukaeran zabalik**

**Elorriaga auzoa - ITZIAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 19 92 37**



## OKINDEGIA

7 domeka EIZAGUIRRE

## FARMAZIAK

### 24 ORDUZ

- 5 Fernandez
- 6 Yudego
- 7 Yudego
- 8 Zabaleta
- 9 Etxeberria (Errosario)
- 10 Ibañez
- 11 Garitaonandia-Bidasolo
- 12 Etxeberria (Santa Ana)

### Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 638

### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagartza (MENDARO)  
Tel: 943 756 142

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 384

## INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



## 5 barixakua

### Antzerkia

20:30 'Xabainator'

Gorringo antzerki taldeak  
Xabainator antzezlan taularatuko  
du. Herriko Antzokian.

### Bisita

18:00 Memoria historikoaren  
autobusa

Ondare historikoa  
berreskuratzeko asmoz jarri zuten  
martxan memoria historikoaren  
autobusa. Kultur Etxe aurrean.

## 6 zapatua

### Ikastaroa

10:00 Programazio  
neurolinguistikoa

Loredi Salegik eskainiko du  
ikastaroa, Kultur Etxeko hitzaldi  
gelan.

## 7 domeka

### Erakusketa

11:00 Perretxiko erakusketa

Karakate elkarteak perretxiko  
erakusketa antolatu du. Arratsal-  
dez ere zabalduko dute erakus-  
keta, 17:00etatik aurrera. Kultur  
Etxeko sotoan.

### Aisialdia

12:30 Gaztañerre eguna

Danbolinean erretako gaztainak  
jateko aukera izango da, Altzola-  
ko Zelaia parkean, Zubibai elkar-  
teak antolatuta.

## 10 eguaztena

### Ospakizuna

12:00 Oroimenaren Eguna

Aldarrikapen instituzionala  
irakurriko dute Udaletxeko pleno  
aretoan, eta ondoren, lore sorta  
bat jarriko dute Gernikako  
Arbolaren kimuaren oinetan.

### Ipuin kontalaria

17:00 'Once upon a time'

Annie Funny ipuin kontalariaren  
saioa izango da liburutegian,  
ingelesean.

### Ikastaroa

18:00 Dantza performance

ikastaroa

Maider Urrutia eta Ana Revuelta  
irakasleek eskainiko dute, Kultur  
Etxeko sotoan.

## LUDOTEKAKO EKINTZAK



### BARIXAKUA 5

Talde jolasak 17:00

### ASTELEHENA 8

Pelikula: 'Pixar-en laburrak' 17:00

### MARTITZENA 9

Badminton indor 17:30

### EGUAZTENA 10

Marrakí txokoa 17:30

### EGUENA 11

Estrategiazko jolasak 17:30

## GAZTELEKUKO EKINTZAK



### CAPOEIRA TAILERRAK

ANTOLATU DITUGU,  
AZAROAREN  
13rako eta 19rako.

IZENA EMATEA DOAN DA  
eta AZAROAREN 7a  
IZANGO DA  
AZKEN EGUNA.

ANIMATU ZAITEZ!!!!

### «Come, reza, ama»

6, zapatua:  
19:00/22:15

7, domeka: 19:00  
8, astelehena: 21:30

### «Campanilla y el gran rescate»

7, domeka: 16:30

'Come, reza, zama'. Estatu Batuak, 2010. Zuz.: Ryan Murphy.  
Akt.: Julia Roberts, Javier Bardem, Billy Crudup, James Franco.  
140 min. Dibortzio zaila izan ostean, Liz Gilbertek urte sabatikoa  
hartzea erabaki du. Bidaia exotiko eta miragarri batean, otoitza-  
ren indarraz jabetuko da eta amodioa aurkituko du Balin. Drama.



## 11 *eguna*

### Hitzaldia

19:00 Baserritik sukaldera

Baserriko produktuen salmenta zuzena sustatzeko ekimena jarri du martxan EHNE sindikatuak, eta horri buruzko hitzaldi informatiboa eskainiko dute. Kultur Etxean.

## 12 *barixakua*

### Erakusketa

19:00 'Egunerokoa'

Ongarri argazkilari taldeak Gorka Salmeron argazkilaria lanak jarriko ditu ikusgai Kultur Etxean.



## Gure gomendioa

### Gaztañerre eguna

Azaroak 7, domeka, Aitzolan, 12:30ean

Aitzolako Zubibai elkarteak Gaztañerre eguna antolatu du domekarako. Iaz berreskutatu zuten antzinako tradizio hori, eta aurrean ere, danbolinean erretako gaztainak jateko aukera izango dute Zelaia parkera gerturatzen direnek.



# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Defentsa pertsonala

Norentzat: Segurtasun enpresetako langileentzat  
Hizkuntza: Gaztelania  
Hasiera data: 2010-11-12 / Bukaera data: 2011-06-03  
Non: Eibarren  
Izena emateko: 943 208 444 (Santiago Iruretagoiena)

### Ofimatika

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gaztelania  
Hasiera data: 2010-11-15 / Bukaera data: 2011-03-11  
Non: Eibarren  
Izena emateko azken eguna: Kotsultatu

### Aerobik dinamizatzailea

Norentzat: Interesatuentzat  
Hizkuntza: Gaztelania  
Hasiera data: 2011-01-17  
Non: Eibarren  
Izena emateko azken eguna: Kotsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71

ESKERTZA

## JOXE ODRIA OSORO



*Alaitasunaren iturritik  
edan genuen elkarrekin  
oroimenean izango zara  
zu beti gurekin*



2010eko azaroaren 2an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Erretratu zaharra



**1952**

Aste honetako erretratu zaharra Maite Vallejok ekarri du BARRENERA. 1952an ateratako argazkia da, eta Elgoibarko Parrokiako katekistak azaltzen dira bertan. Kristau ikasbidekoek irteerak egiten zituzten noizean behin, eta egun hartan Arratera egin zuten txangoa. Gogora ditzagun zeintzuk diren katekista gazte horiek.

**Goian, ezkerretik eskumara:** Conchita Santolaya (†), Mari Carmen Azpiazu, Maria Luisa Rementeria, Mari Luz Izagirre.

**Erdian:** Isabel Aizpitarte, Rosario Arregi eta Inazita Regil.

**Eserita:** Itziar Conde, Mari Cruz Zuazubizkar eta Maite Vallejo.



MEZA

## PAKITA IBARMIA URZELAI

2010eko urriaren 20an hil zen.

Haren oroimenez meza izango da, domekan, azaroak 7, goizeko 10:30ean San Lorentzoko elizan. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

## JOSE MARIA BASTIDA AZPIAZU

2009ko azaroaren 5ean hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, azaroak 7, eguerdiko 12:00etan Mendaroko Garagartza elizan. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



# LODOSO LEIHOAK

*Zure neurria egindako lana*



- PVCa
- ALUMINIOA TERMIKOA
- ZURA
- ALUMINIOA
- POLIURETANOA



Sigmako industrialdea, Xixilion, 2. pabilioia, 3. zenbakia  
Tel.: 943 74 34 90 Faxa: 943 74 73 12  
[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)  
[fjlodoso@euskalnet.net](mailto:fjlodoso@euskalnet.net)

**Aluminio-egurrean  
espezialitatea**

# LAGUNAK KOLTXOI DENDA - TEXTIL HOGAR



**ZATOZ GURE  
ERAKUSKETA BERRIA  
IKUSTERA!**

San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)







# OSASUN GIDA



## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

*Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.*

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Bach loreak, P.N.L., janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Familia konstelazio tailerrak. Quantum scio (alergiak...). Naturopata eta makrobiotika kontsultak ordua aurrez hartuta. San Bartolome, 29 - Tel: 943 744 031 Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

*Mendaro:* Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

## Pakene Ongizate Integraleko Zentru Berria

(Azterketa biologikoa eta osteopatikoa, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarrak, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasanazintasunak, Bach-en loreak...). Tel: 943 254 505

## MASAJISTAK

### Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)  
Tel.: 943 740 770  
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

## PODOLOGOAK

### Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

### Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurriren egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behe

Tel: 943 741 645

Ordutegia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

## FISIOTERAPIA

### Ainhoa Fisioterapia

Jausoro, 6 behe.

Goiz eta arratsalde.

Tel.: 943 531 953 / 669 565 745

### Andoni Schmidt Larrañaga

#### Etzerako Fisioterapia

Jende nagusia, neurologia, errehabilitazio orokorra, masajeak. Ekipo portatila. Ordua eskatu.

San Roke 8, behe - Tel.: 689 926 016

Kontsulta ere badaukagu.

## ORTOPEDIKAK

### Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Tel: 943 74 35 62

## OPTIKAK

### Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 743 734

### Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 740 359

## HORTZ KLINIKAK

### Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behe (Ermua)

Tel: 943 177 134

[irale@irale.com](mailto:irale@irale.com) - [www.irale.com](http://www.irale.com)

### Leku eder

Elena Herrero Lobo.

Aita Agirre enparantza, 5 behe.

Tel: 943 530 053 - [lekueder@infomed.es](mailto:lekueder@infomed.es)

### Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behe

Tel: 943 531 869

